

3. Konpromiso Taldearen

3. bilera

2019ko urtarrilaren 30a

.....

Bileraren helburua

Aurreko bileran ZER galderari buruz eta I-labaren formatuari eta gobernantza-ereduari buruz jasotako informazioa baliozkotzea; I-labaren gobernantza-ereduari buruz sakonago eztabaidatzea eta ikuspegi desberdinak jasotzea, gutxieneko adostasunetara iristen saiatuta.

Parte-hartzaileak

Joseba Muxika, Koldobike Uriarte, Gotzon Bernaola, Goizalde Atxutegi, Nerea Ollokiegi, César Rodriguez, Itziar Solozabal, Mikel Barturen, Aitzol Batiz, Marixe Noya, Mikeldi Zeberio, Antxon Gallego, Jon Abril, Diego Fernández, Itziar Calvo eta Miren Arbelaz.

Gai-zerrenda

Ongietorria eta "Etorkizuna Eraikiz" proiektuaren aurkezpena

Joseba Muxikak Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Etorkizuna Eraikiz" proiektua eta "Etorkizuna Eraikiz Gunea" espazioa aurkeztu ditu.

Mapaketaren edukien aurkezpena

Ricardo Antonek (ColaBoraBora) mapaketan emandako aurrerapausoen berri eman du eta lehen ondorioak aurkeztu ditu. Aurkezpenean kontu hauei buruzko gako batzuk eman dira:

- Agente nagusiak eta Administrazioak eta herritarrek bultzatutako proiektuek dituzten arriskuak.
- Botereak, kapitalak eta gaitasunak kudeatzeko moduak.
- Lab-sare bat sortzea: nodoen ezaugarriak, partekatzen diren gutxienekoak, gidatze-taldeko agenteak eta gaitasunak, kudeaketa, saretik sortutako prozesuak.
- Sare-egiturak izan dezakeen itxura, kontuan hartuta sarearen osagaiak eta haien arteko lotura.

3. Konpromiso Taldearen 2. bilerako edukien aurkezpena

Ane Abarrategik (TIPI) 3. Konpromiso Taldearen 2. bileran jasotako informazioaren laburpen-mapa bat aurkeztu du. Edukiak hiru ataletan banatuta aurkeztu dira:

1. Zertarako eta Zertan. Zer da lehentasunezkoena eta esanguratsuena, eta zergatik?
2. Formatuak. Osagaiak, programak, tresnak...
3. Antolaketa. Gobernantza, kudeaketa, prozedurak, sarea...

Elkarrizketa-mahaiak

Helburua da ikuspegiak partekatzea eta I-laben gobernantza-ereduari buruz eztabaidatzea. Taldea 4 mahaitan banatzen da, eta mahai bakoitzean saiatu behar dira zehazten zein diren sarea definitzen duten gutxienekoak eta zein diren sarearen egituraren forma eta ezaugarriak.

Talde bakoitzean adostutakoa fitxa batean jaso da mahai banatan, eta proposatutakoaren laburpena dokumentu honetako "Akta" atalean dago.

Bateratze-lana

Mahai bakoitzean eraikitako gobernantza-eredua partekatu egiten da, baita elkarrizketan sortutako eztabaidak, zalantzak eta galderak ere.

Amaiera

Amaitzeko, bilera laburbiltzen duen hitz bat esan behar du bakoitzak.

Akta


Elkarrizketa-mahaiak

Hona hemen mahaietan jasotako informazioa, mahaika antolatuta.

- 1. mahaia <<[Gure I-laba](#)>>
- 2. mahaia <<[Ahotsak kontuan](#)>>
- 3. mahaia <<[Herritarrekin bat](#)>>
- 4. mahaia <<[I-lab. Herritarren parte hartzerako laborategia](#)>>

Gure Ilab-a

<<Ahal denean dena, ezin denean ahal dena>>



1/ Partekatutako gutxienekoak zehaztea

Oinarri diren balioak

- Ekitatea
- Iritzi-askatasuna
- Inklusibotasuna
- Berrikuntza (aldaketa-eragilea)

Funtzionatzeko oinarrizko 3 arau:

1. Araututako partaidetzarako foru irekia.
 2. Ahots bera: ideia guztiak onartzen dira
 3. Elkari pasatzea: komunikazioa, materialak, erabakia...
 4. Parte hartzeko eta atxikitzeko askatasuna (likidoagoa), Q-epea ereduari jarraituz.
- Administrazioaren lurralde-egiturak berriz errepikatu beharrik gabe.

Nodoen alderdi komunak:

- Balioak
- Helburuak
- Elkarrekin konektatuta
- Nodoen aurrerapenekiko errespetua

2/ Egitura

Azpiegitura eta baliabideak:

- Erabilera anitzeko aurrez aurreko espazioak eta espazio birtual bat.
- Baliabide ekonomikoak: idazkaritza teknikoa, prestakuntza...


Behar dituen eta eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Metodologiak
- Prestakuntza
- Ezagutza eta "beste" esperientzia batzuk elkarri pasatzea

Koordinazioa eta kudeaketa:

- Gidaritza teknikoa duen egitura bat, helburuak erabaki politikoen gainetik egon daitezen.

Ahotsak kontuan



1/ Partekatutako gutxienekoak zehaztea

Oinarri diren balioak

- Lidergo partekatua
- Autonomia (nodoak eta parte-hartzaileak)
- Konpromisoa
- Gardentasuna
- Malgutasuna (ausardia, berrikuntza)
- Konfiantza
- Edukien eta agenteen aniztasuna, inklusibotasuna

Funtzionatzeko oinarrizko 3 arau:

1. Sortutako ezagutza elkarri pasatzea.
2. Irizpide bateratuak, aniztasuna bermatze aldera, eta adhokratikoak.

Nodoen alderdi komunak:

- Balioak
- Etorkizunera begira
- Erreferentziako espazioa

2/ Egitura

Azpiegitura eta baliabideak:


- Iaraldean jadanik badauden azpiegiturak erabiltzea (liburutegiak, kultur-guneak...).
- Aurrekontua
- Talde teknikoa
- Nodo zentrala

Koordinazioa eta kudeaketa:

- Koordinazioa eta partekatutako kudeaketa.
- Gobernantza banatua.
- Nodo bakoitzak du erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Nodo zentralak ezagutza elkarri pasatzea, beste nodoetara joan ahal izatea eta sarean partekatzea bermatzen du.

Herritarrekin bat

Partaidetzan endredatzen



1/ Partekatutako gutxienekoak zehaztea

Oinarri diren balioak

- Aniztasuna eta inklusioa (nodoak)
- Komunikazioa eta transferentzia
- Konfiantza
- Konpromisoa eta erantzunkidetasuna

Funtzionatzeko oinarritzko 3 arau:

- Gutxieneko bat definitzen duten arauak: lan egiteko moduak, zerbitzu-eskaintza...uniformetasuna saihestuz, erronkak. partaidetzan oinarrituta (hainbat agente): erakundeak + adituak + herritarrak.
- Irekia eta malgua, errealitate bakoitzari egokitzeko ahalmenarekin.
- Gai desberdinen inguruan modu desberdinetan lan egitea. Modelo likidoa, lurraldeko idiosinkrasia kulturalera egokitzen dena.
- Zehaztasun-premia (egitura, gardentasuna, ebaluazioa).

Nodoen alderdi komunak:

- Itxaropenen kudeaketa

2/ Egitura

Azpiegitura eta baliabideak:


- Metodoen, esperientzien, praktika onen... biltegi bakarra denontzat.
- Elkargune fisiko eta birtuala.

Koordinazioa eta kudeaketa:

- Koordinaziorako eta kudeaketarako gutxieneko egitura egonkorra.
- Egitura malgua eta anitza, planifikatzeko, adorea emateko eta estrategia zehazteko.

I-LAB Herritarren parte-hartzerako laborategia

Txikitik handira



1/ Partekatutako gutxienekoak zehaztea

Oinarri diren balioak

- Zehaztasuna: partaidetza sustatzea modu eraikitzailean.
- Jadanik dagoenaren balioa aitortzea: testuinguru bakoitzera egokitzea.
- Sustatzea, beharrezkotzat jotzen diren gaietatik abiatuta (herritarren eta gizartearen premiak).

Funtzionatzeko oinarrizko 3 arau:

1. PARTEKATZEA. Prozesuak sistematizatzea: kalitatea bermatzea, egoerak sortzea, partekatzea.
2. ERALDATZEA. Ikerketa- eta behaketa-lana: "antena" izatea, kanpoan egiten diren berrikuntzak antzemateko.
3. ENTZUTEA. Konponbide berritzaileak ematea, toki-errealitateari erantzuteko.

Nodoen alderdi komunak:

- Lan egiteko moduak eta zuzendaritza
- Marka
- Herritarren parte-hartzea

Nodoen arteko desberdintasunak

- Lan-gaiak Nodo bakoitzak inguruko premiei erantzuten die (ZER EGIN?)
- Lan egiteko espazio-eremua: auzoetatik lurraldera.

2/ Egitura

Azpiegitura eta baliabideak:

- Nodo instituzionalak: sarearen gutxieneko egitura mantentzen dute.
- Nodo sozialak: sartu eta irten egiten dira, interesaren eta proiektuaren arabera.
- Bitartekari-nodo pribatuak: alderdi teknikoa eta laguntza eskaintzen dute

Behar dituen eta eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Soziala: tresna pedagogikoak, web eta tutoretza-lan bidez.
- Publikoa: aholkularitzarako hornitzaile-sare bat, eta proiektu pilotuak egiteko aukera
- Partaidetzaren inguruko ikerketak egiteko beka edo laguntzak

Koordinazioa eta kudeaketa:

- Baliabide ekonomikoen iturria zehazteko premia.